

Hirugarrena. Egikaritzen ari diren prestazioei arau hauek ez aplikatzea

Arau hauek ez zaizkie aplikatuko egikaritzen ari diren prestazioei edo luzatutako prestazioei, baldin eta prestazio horiek arau hauen aurreko xedapenen arabera hitzartuak badira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA**Bakarra**

Indargabetuta geratzen da 2010eko urtarrilaren 19an Mahaiak onartutako Eusko Legebiltzarraren aurrekontuaren kontura egiten diren erosketak arautzeko erregelamendua, bai eta arau hauetan xedatutakoaren aurka dauden jarraibide guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK**Lehena. Argitaratzea**

Arau hau Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean, Gardentasunaren Atarian eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bigarrena. Ondorioak

Arau hau indarrean jartzen denean, ondoriorik gabe geratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatutakoa.

Hirugarrena. Indarrean jartzea

Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko dira indarrean honako arau hauek.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren instrukzioa, Eusko Legebiltzarreko areto eta instalazioetarako sarrera, presentzia eta erabilera arautzen dituen

Mahaiak, 2022ko apirilaren 26ko bileran, onetsi du Eusko Legebiltzarreko areto eta instalazioetarako sarrera, presentzia eta erabilera arautzen dituen instrukzioa, eta erabaki du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin**

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIAREN 2022KO APIRILAREN 26KO INSTRUKZIOA, EUSKO LEGEBILTZARREKO ARETO ETA INSTALAZIOETARAKO SARRERA, PRESENTZIA ETA ERABILERA ARAUTZEN DITUENA

OMEk 2020ko martxoaren 13an COVID-19aren pandemia ofizialki deklaratu zuenetik,

Tercera. No aplicación de las presentes normas a prestaciones en ejecución

Las presentes normas no se aplicarán a aquellas prestaciones en ejecución o prorrogadas que se hubieren concertado conforme a disposiciones anteriores a estas normas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA**Única**

Queda derogado el Reglamento regulador de las compras realizadas con cargo al presupuesto del Parlamento Vasco aprobado por la Mesa del 19 de enero de 2010, así como cuantas instrucciones se opongán a lo dispuesto en las presentes normas.

DISPOSICIONES FINALES**Primera. Publicación**

Esta norma será publicada en el Boletín del Parlamento Vasco, en el Portal de Transparencia y en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda. Efectos

A la entrada en vigor de la presente norma quedará sin efecto lo dispuesto en el párrafo tercero del apartado 2 de la disposición adicional octava de la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2011.

Tercera. Entrada en vigor

Las presentes normas entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Instrucción de la Mesa del Parlamento Vasco por la que se regula el acceso, la presencia y el uso de las salas e instalaciones del Parlamento Vasco

La Mesa, en su reunión del día 26 de abril de 2022, aprueba la instrucción por la que se regula el acceso, la presencia y el uso de las salas e instalaciones del Parlamento Vasco, y acuerda su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin**

INSTRUCCIÓN DE 26 DE ABRIL DE 2022 DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO POR LA QUE SE REGULA EL ACCESO, LA PRESENCIA Y EL USO DE LAS SALAS E INSTALACIONES DEL PARLAMENTO VASCO

Desde que la OMS declaró oficialmente el pasado 13 de marzo de 2020 la COVID-19 como



Eusko Legebiltzarrak egoera epidemiologikoaren eboluzioaren ondoriozko egoera normatiboaren arabera aldatu izan du bere funtzionamendua; ondorioz, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, zenbait erabakiren bidez, prebentzio-neurriak eta -planak jarri ditu abian, bai antolamenduari, bai babes kolektiboari eta babes pertsonalari dagokienez, Ganberaren antolamenduan eta funtzionamenduan eragiten duten alderdiak behin-behinean erregulatuz une jakin bakoitzean.

Orain, lehendakariaren otsailaren 11ko 5/2022 Dekretuaren bidez, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera amaitu dela deklaratu denez gero, eta kontuan hartuta COVID-19aren aurkako zaintza- eta kontrol-estrategia, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2022ko apirilaren 1eko zaintza epidemiologikorako protokoloan jasota dagoena, eta 286/2022 Errege Dekretua, apirilaren 19koa, zeinaren bidez COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiak iraun bitartean maskarak erabiltzeko derrigortasuna aldatzen baita, beharrezkoa da egokitu, harmonizatu eta eguneratzea orain arte hartu izan diren eta lan parlamentarioari bereziki eragiten dioten neurri guztiak, aldi berri honi begira.

Horregatik guztiagatik, honako neurri hauek ezartzen dira:

Lehenengoa. Eusko Legebiltzarreko areto guztietara sartzeko neurriak eta edukierak

1. Erabiltzaileak Eusko Legebiltzarreko aretoetara sartzeko, ezinbestekoa izango dira akreditazioa, identifikazioa eta sarrera-kontrola, Legebiltzarreko Mahaiak 2021eko otsailaren 9an onetsitako instrukzioaren arabera (Instrukzioa, XII. legegintzaldian Legebiltzarraren egoitzarako eta bulegoetarako sarreraren kudeaketa ezartzen duena pertsonal akreditatuaren kasuan).
2. Sarrerak kudeatzeko, indarrean dauden arau eta instrukzioak beteko dira, une bakoitzean zehaztuko diren edukiera-mugak kontuan hartuz.
3. Mahaiak sarrerak kontrolatzeko irizpide osagarriak ezarri ahal izango ditu.
4. Legebiltzarreko Mahaiak Eusko Legebiltzarreko barruetako edukierak eguneratuko ditu.

Bigarrena. Jaurlaritzaren eta talde parlamentarioen gonbidatuak osoko bilkura egiten den egunetan

Edukierak behar bezala kontrolatzeko asmoz:

pandemia, el Parlamento Vasco ha ido adaptando su funcionamiento al escenario normativo derivado de la evolución de la situación epidemiológica, y, en consecuencia, la Mesa del Parlamento, mediante diversos acuerdos, ha puesto en marcha medidas y planes de prevención, tanto de carácter organizativo como de protección colectiva y de protección personal, que de forma coyuntural han ido regulando provisionalmente diversos aspectos que inciden en la organización y funcionamiento de la Cámara.

Una vez que mediante el Decreto 5/2022, de 11 de febrero, del lehendakari, se ha declarado la finalización de la situación de emergencia sanitaria derivada de la pandemia de COVID-19, y, así mismo, atendiendo a la estrategia de vigilancia y control frente a la COVID-19 recogida en el protocolo de vigilancia epidemiológica del Departamento de Salud del Gobierno Vasco de 1 de abril de 2022, y al Real Decreto 286/2022, de 19 de abril, por el que se modifica la obligatoriedad del uso de las mascarillas durante la situación de crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19, es preciso adecuar, armonizar y actualizar las diversas medidas que se han ido adoptando con especial relevancia para la labor parlamentaria de cara a este nuevo periodo.

Por todo ello, se establecen las siguientes medidas:

Primero. Medidas de acceso a todas las dependencias del Parlamento Vasco y aforos

1. El acceso a las dependencias del Parlamento Vasco por las distintas personas usuarias exigirá la debida acreditación, identificación y control de acceso, de conformidad con lo dispuesto en la instrucción que establece la gestión de accesos a la sede y dependencias parlamentarias durante la XII legislatura por parte del personal acreditado, aprobada por la Mesa del Parlamento el 9 de febrero de 2021.
2. La gestión de accesos se realizará en cumplimiento de la normativa e instrucciones vigentes, y atendiendo a la delimitación de aforos que se determine en cada momento.
3. La Mesa podrá establecer criterios complementarios para el control de los accesos.
4. La actualización de los aforos de los recintos del Parlamento Vasco se llevará a efecto por la Mesa del Parlamento.

Segundo. Personas invitadas los días de pleno por parte del Gobierno y de los grupos parlamentarios

A efectos de establecer un correcto control de los accesos:



1. Talde parlamentarioek, beren gonbidatuei dagokienez, Eusko Legebiltzarreko Protokolo Atalari jakinaraziko diote (protokolo@legebiltzarra.eus), 48 ordu aurretik, osoko bilkureta joango direnen nortasuna.
2. Eusko Jaurilaritzako goi-karguek, aldi baterako langileek eta funtzionarioek Jaurilaritzaren Idazkaritza eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez jakinaraziko dute beren presentzia, bilkuran zehar non kokatzea nahi duten adieraziz. Eusko Legebiltzarreko Protokolo Atalaren ahalmena da bisitarietarako eremu komunitarioa behin betiko kokapena zehaztea.
3. Protokolo Atalak artatuko ditu talde parlamentarioen gonbidatuak. Legebiltzarrera iristen direnean, Ertzaintzak unitate hori ohartaraziko du eta horrek bere gain hartuko du gonbidatuak laguntzeko eta kokatzeko ardura.

Hirugarrena. Batzordeak eta ponentziak

Eragile sozial eta ekonomikoen agerraldiak, elkarrean, sindikatuen, enpresaburuen elkarrean ordezkariek, interes kolektibo edo partikularren ordezkariek eta abarrek, 48 ordu aurretik jakinaraziko zaizkio Eusko Legebiltzarreko Protokolo Atalari (protokolo@legebiltzarra.eus). Modu presentzialean edo bide telematikotatik egingo dira.

Laugarrena. Aretoen antolaketa

1. Legebiltzarraren egoitzako bilera informalek eta taldearteko bilerak arautzeko Legebiltzarreko Mahaiak 2021eko ekainaren 22an onetsi zuen instrukzioan xedatuta dagoenari jarraiki egingo dira taldearteko bilerak.

Eskaria barnegunetik egingo da:

http://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/b0be092b-bf18-4dee-bfca-2a6140c8133a

2. Eusko Legebiltzarreko areto komunitarioan egingo diren bilera pribatuak kasuan, talde parlamentarioen eta eskatzaileen (Jaurilaritza, kazetariak eta abar) beharrez teknikoak eta espazioari dagozkionak, gutxienez 24 ordu aurretik jakinaraziko zaizkio Eusko Legebiltzarreko Protokolo Atalari (protokolo@legebiltzarra.eus), zeinak inplikaturiko zerbitzuei jakinaraziko baitie. Nolanahi ere, adieraziko dira aurreikusitako hasiera- eta amaiera-ordua, parte-hartzaileen kopurua eta legebiltzarkiderik egongo den, zeren jardura parlamentarioak lehentasuna

1. Los grupos parlamentarios, en lo relativo a sus personas invitadas, comunicarán con 48 horas de antelación a la Sección de Protocolo del Parlamento Vasco, protokolo@legebiltzarra.eus, la identidad de las personas que asistirán a las distintas sesiones plenarias.
2. Los altos cargos, personal eventual y funcionarios/as del Gobierno Vasco comunicarán su presencia por medio de la Secretaría de Gobierno y Relaciones con el Parlamento, e indicarán dónde desean estar ubicados durante la sesión. La determinación de la ubicación final en los espacios comunes de las personas visitantes es facultad de la Sección de Protocolo del Parlamento Vasco.
3. Las personas invitadas por los grupos parlamentarios serán atendidas por la Sección de Protocolo. A su llegada a la sede, la Ertzaintza avisará a dicha unidad, que asumirá el acompañamiento y ubicación de las personas invitadas.

Tercero. Comisiones y ponencias

Las comparecencias de los agentes sociales y económicos, representantes de asociaciones, sindicatos, organizaciones empresariales, representantes de intereses colectivos o particulares, etcétera, se comunicarán con 48 horas de antelación a la Sección de Protocolo del Parlamento Vasco, protokolo@legebiltzarra.eus. Se materializarán de forma presencial o por medios telemáticos.

Cuarto. Ordenación de las salas

1. Las reuniones de los intergrupos se llevarán a cabo de conformidad con lo dispuesto en la instrucción por la que se regula el funcionamiento de las salas para reuniones informales y de los intergrupos en la sede del Parlamento, aprobada por la Mesa del Parlamento el 22 de junio de 2021.

La solicitud se realizará a través de barnegune:

http://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/cd87c6ff-2367-45e3-bbf2-1d113a6fad01

2. En el caso de las reuniones privadas que tendrán lugar en las salas comunes del Parlamento Vasco, las necesidades técnicas y de espacio que se precisen por parte de los grupos parlamentarios o personas usuarias solicitantes (Gobierno, periodistas, etcétera.) serán comunicadas con un mínimo de 24 horas de antelación a la Sección de Protocolo del Parlamento Vasco, protokolo@legebiltzarra.eus, que las pondrá en conocimiento de los distintos servicios implicados. Se indicarán en todo caso las horas de inicio y fin previstas, el número de



izango baitu gainerakoekiko. Beharrezkoa bada prentsak jarraipena egitea, beren-beregi adierazi beharko da.

3. Taldeartekoen eta taldeen bilerak batzorde- eta ponentzia-aretoetan egingo dira, Protokolo Atalak zehazten duenaren arabera.

Bosgarrena. Jarduera ez-parlamentarioak

Mahaiak baimendutako jarduera ez-parlamentarioak egiteko, Legebiltzarrak indarreko arautegia eta instrukzioak betez ezarritako higie- eta segurtasun-arauak beteko dira, eta Autobabes Planak zehaztutako edukiera-mugak kontuan hartuko dira.

Seigarrena. Hedabideak, prentsa, irratia eta telebista

1. Legebiltzarrera sartzeko eta bertan egoteko ordutegia jarduera parlamentarioari lotuta egongo da beti.

Legebiltzarreko jarduerari buruzko informazioa ohiko ordutegitik kanpo emateko eskaerei erantzungo zaie. Horretarako, aldeztu aurretik eskaera egin eta bertaratuko diren pertsonak jakinarazi beharko dira (telebisten zuzenekoak, adibidez). Prentsa eta Komunikazio Atala arduratuko da eskabide horiek izapidetzeaz eta beharrezko espazioak esleitzeaz. Era berean, atal horren ardura izango da Eusko Legebiltzarraren jarduera parlamentario eta instituzionalarekin lotutako estaldura bereziak izapidetzea (irratia bereziak edo elkarrizketak, adibidez).

2. Prentsa eta Komunikazio Atalak egindako akreditazioak honako eskubide hauek emango dizkie titularrei:

- Egoitza parlamentarioa sartzeko, kokatuta egongo diren guneetara.
- Osoko bilkuren aretoan prentsarako egokitu den tribuna sartzeko.
- Egoitza parlamentarioan egiten diren prentsaurrekoen, adierazpenen eta bestelako informazio-ekitaldien jarraipena egitea, Prentsa eta Komunikazio Atalak hartarako ezarri dituen baldintzetan.

participantes y si hay presencia de parlamentarios o parlamentarias, ya que la actividad parlamentaria tendrá preferencia sobre el resto. En caso de necesitar cobertura de prensa, se habrá de señalar expresamente.

3. Las reuniones de intergrupos y reuniones de grupo se llevarán a cabo en las distintas salas de comisiones y ponencias, según lo determine la Sección de Protocolo.

Quinto. Actividades extraparlamentarias

Las actividades extraparlamentarias que se autoricen por la Mesa se desarrollarán cumpliendo las medidas de higiene y seguridad que se establezcan por el Parlamento en cumplimiento de la normativa e instrucciones vigentes, y atendiendo a la delimitación de aforos que se determinan en el Plan de Autoprotección.

Sexto. Medios de comunicación, prensa, radio y televisión

1. El horario de acceso y presencia en el Parlamento siempre estará vinculado a la actividad parlamentaria.

Se atenderán las solicitudes de cobertura informativa de la actividad parlamentaria fuera del horario ordinario de la actividad, debiendo estar previamente solicitada la actividad y notificadas las personas que la realizarán (directos de televisiones, por ejemplo). Será la Sección de Prensa y Comunicación la responsable de la tramitación de dichas solicitudes, así como de la asignación de los espacios necesarios. Igualmente, será responsabilidad de dicha sección la tramitación de las coberturas especiales vinculadas con la actividad parlamentaria e institucional de la Cámara vasca (programas especiales de radio o entrevistas, por ejemplo).

2. La credencial expedida por la Sección de Prensa y Comunicación dará derecho a sus titulares a:

- Acceder en la sede parlamentaria a los espacios en los que vayan a estar ubicados.
- Acceder a la tribuna del salón de plenos habilitada para prensa.
- Efectuar la cobertura de ruedas de prensa, declaraciones y cualesquiera otros actos informativos que tengan lugar en la sede parlamentaria en las condiciones establecidas para ello por la Sección de Prensa y Comunicación.

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Mota guztietako ekitaldi instituzionalen jarraipen informatiboa egitea, Prentsa eta Komunikazio Atalak hartarako ezarri dituen baldintzetan. • Eusko Legebiltzarrak hedabideentzat ipini dituen lanabesak erabiltzea, errespetatuz hedabide mota bakoitzari dagozkion eremuak. | <ul style="list-style-type: none"> • Efectuar coberturas informativas de todo tipo de actos institucionales en las condiciones que establezca la Sección de Prensa y Comunicación. • Emplear las herramientas que el Parlamento Vasco ha instalado a disposición de los medios respetando los espacios que corresponden a cada tipo de medio de comunicación. |
| <p>3. Jarraipen iraunkorreko hedabideek, hala nola erredaktore grafikoek eta TBko kameralariak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egoitza parlamentarioko espazio komun guztietan egin ahal izango dute jarraipen informatiboa, kafetegian eta gela pribatuetan (bulegoetan, taldeen geletan) izan ezik, salbu haien erabiltzaileen baimena dutenean. • Osoko bilkuretan, aretoan haientzat prestatutako lekuetan egin beharko dute lan. • Ezin izango da telebistako grabaziorik egin prentsa-palkoetatik. Argazkilariak modu ordenatuan sartu ahal izango dira prentsa-palkoetan. Bidaltzeko eta deskargatzeko, erreserbatutako gunek izango dituzte Tomas Moro aretoan. • Osoko bilkuretan ezin izango dituzte irrati-kabinak erabili baliabide grafikoak hartzeko. • Mahaiaren, Bozeramaileen Batzarraren edo ponentzien bileretan, bilera hasi aurretik baino ezin izango dira irudiak hartu. | <p>3. Los medios con cobertura permanente, como redactoras y redactores gráficos y cámaras de TV:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Podrán efectuar coberturas informativas en todos los espacios comunes de la sede parlamentaria, excepto en la cafetería y en dependencias privadas (despachos, sedes de grupos), salvo expresa autorización de las personas usuarias. • Durante los plenos deberán realizar su trabajo dentro del salón, en los lugares habilitados para ellos. • No podrán realizarse grabaciones de televisión desde los palcos de prensa; las fotografías y los fotógrafos podrán acceder a los mismos de manera ordenada. Para su envío y descarga contarán con espacios reservados en la sala Tomás Moro. • Durante las sesiones plenarias no se podrán utilizar las cabinas de radio para la toma de recursos gráficos. • Durante las sesiones de Mesa, Junta de Portavoces o ponencias se podrán tomar imágenes exclusivamente antes del comienzo de la reunión. |
| <p>4. TBko teknikariak seinale instituzionala grabatu ahal izango dute eta behar besteko kanpo-konexio egin hartarako prestatutako gelatik, zeina prentsa-aretoko mahai nagusiaren eskuinaldean baitago.</p> | <p>4. El personal técnico de TV podrá grabar la señal institucional y realizar las conexiones exteriores que requiera desde la sala habilitada para ello, ubicada a la derecha de la mesa cabecera de la sala de prensa.</p> |
| <p>5. Irratiko teknikariak eta erredaktoreak lana egiteko behar dituzten bitarteko teknikoak izango dituzte lehengo solairuan prestatutako kabinetan.</p> | <p>5. El personal técnico y las redactoras y los redactores de radio dispondrán de los medios técnicos necesarios para su trabajo en las cabinas habilitadas en la primera planta.</p> |
| <p>6. Prentsa-erredaktoreak eta berri-agentziek lana egiteko terminalak izango dituzte hartarako prestatutako aretoan, egoitza nagusiaren atartearen ezkerrean.</p> | <p>6. Las redactoras y los redactores de prensa y agencias de noticias dispondrán de terminales para realizar su trabajo en la sala habilitada para este fin en la zona izquierda del vestíbulo de la sede principal.</p> |
| <p>7. Noizean behingo jarraipena egiten duten hedabideak sartzeko baimena eskatu beharko dute. Ohiko instalazioen betetze-mailaren</p> | <p>7. Los medios con cobertura esporádica deberán solicitar el acceso. En función del grado de saturación de las instalaciones ordinarias, los</p> |



arabera, Eusko Legebiltzarreko zerbitzuek jarraipen-postuak prestatuko dituzte egoitzako beste eremu batzuetan, normalki Tomas Moro aretoan, betiere Eusko Legebiltzarreko zerbitzuek areto horretan baimendutako beste jarduerekin bateragarria bada. Prentsa eta Komunikazio Atala da instalazio hartako postuak esleitu behar dituen organoa.

8. Talde parlamentarioen prentsa-laguntzaile akreditatuek berariaz jakin beharko diote Prentsa eta Komunikazio Atalari euren betebeharren artean taldeei laguntza ematea dagoela informazioaren eta komunikazioaren arloan. Hala eginda, baimena izango dute sartzeko egoitza parlamentarioan egiten diren prentsaurrekoetan, adierazpenetan eta bestelako ekitaldi informatiboetan.

Langile horiek baimena izango dute ere osoko bilkuretara joateko eta horien jarraipena egiteko hedabideentzako erreserbatutako guneeetatik, betiere hedabideei lehentasuna emanaz.

Laguntzaile horiek ez dute sartzetik izango osoko bilkuren aretoan legebiltzarkideen irudiak hartzeko grafikoentzat erreserbatutako aldeetan, eta erredaktore grafikoek edozein jardura instituzionaletan bete beharreko arau berberak bete beharko dituzte, betiere hedabideei zor zaien lehentasuna emanaz.

9. Kargu instituzionalen prentsa- eta komunikazio-laguntzaileak osoko bilkuretara joan ahal izango dira, eta ekitaldion jarraipena egin ahal izango dute hedabideentzako erreserbatutako guneeetatik, betiere hedabideei lehentasuna emanaz.
10. Lan horien arduradunek Legebiltzarreko zerbitzuei lagundu beharko diete, egoitzan material informatiboak banatu behar direnean. Materialak banatzeko, laguntza eskatu ahal izango diete Prentsa eta Komunikazio Atalari eta normalean banaketa hori egiten duten mandatariei.

Oraingo aldirako ezartzen dira espazioak egokitzeari buruz II. eranskinean aurreikusitako irizpideak, baita Mahaiak 2020ko irailaren 1ean onetsi zuen prentsa-aretoa erabiltzeko protokoloa ere.

Zazpigarrena. Kanpoko enpresetako langileak

1. Legebiltzarrera sartzen diren enpresek eraikinera sartuko diren langileen eta, kasua bada, ibilgailuen zerrenda jakinarazi beharko diote Mantentze Atalari,

servicios del Parlamento habilitarán los correspondientes puestos de seguimiento en otros espacios de la sede, normalmente en la sala Tomás Moro, siempre y cuando eso sea compatible con otras actividades que los servicios del Parlamento Vasco hayan autorizado en la sala. La Sección de Prensa y Comunicación es el órgano responsable de asignar los puestos en esta instalación.

8. El personal asistente de prensa de los grupos parlamentarios que esté acreditado como tal y entre cuyas competencias se incluya la realización de tareas de apoyo en el ámbito de la información deberán comunicarlo expresamente a la Sección de Prensa y Comunicación, que le habilitará para acceder a ruedas de prensa, declaraciones y cualesquiera actos informativos que se celebren en la sede parlamentaria.

Este personal estará igualmente habilitado para asistir a los plenos y efectuar el correspondiente seguimiento desde los espacios reservados para los medios de comunicación, aunque siempre dando prioridad a los medios.

Este personal no podrá acceder a las zonas reservadas a los gráficos en el salón de plenos para tomar imágenes de los parlamentarios y las parlamentarias, y deberá observar las mismas normas que las redactoras y los redactores gráficos en cualquier actividad institucional, dando siempre la prioridad debida a los medios informativos.

9. El personal asistente de prensa y comunicación de los cargos institucionales podrá asistir a los plenos y efectuar el correspondiente seguimiento desde los espacios reservados a los medios de comunicación, aunque siempre dando prioridad a los medios.

10. Las personas responsables de estas tareas deberán colaborar también con los servicios de la Cámara a la hora de distribuir materiales informativos en la sede. Para su distribución, se contará con la colaboración de la Sección de Prensa y Comunicación y las ujieres y los ujieres que habitualmente se encargan de realizar esta función.

Para el presente periodo se establecen los criterios de adecuación de espacios previstos en el anexo II, así como el protocolo para el uso de la sala de prensa aprobado por la Mesa el 1 de septiembre de 2020.

Séptimo. Personal de empresas externas

1. Las empresas que accedan al Parlamento deberán notificar el listado del personal y vehículos, en su caso, que van a acceder al edificio con 24 horas de antelación



komunikazio bat bidaliz 24 ordu aurretik (mantenimendu@legebiltzarra.eus).

por medio de comunicación a la Sección de Mantenimiento, mantenimendu@legebiltzarra.eus.

2. Kanpoko enpresetako langileen sarrerak kontrolatzeaz arduratzen direnek haiek sartu direla jakinarazi beharko diote dagokion atalari.
3. Lan jakin batzuk egiteko garaian bereizgarriak eramatea (txartelak...) kaltegarria izan daitekeenez gero, egoera jakin batzuetan baimena eman ahal izango da bereizgarria kendu ahal izateko. Nolanahi ere, Legebiltzarraren barruan ibiltzeko beharrezkoa izango da aldean eramatea.

2. Las personas encargadas de controlar los accesos del personal de empresas externas deberán avisar de su entrada a la sección que corresponda.
3. Dado que portar distintivos (txartelas, etcétera) puede resultar perjudicial para la realización de determinados trabajos, se podrá autorizar en situaciones concretas que se pueda quitar el distintivo. En cualquier caso, para circular por las dependencias parlamentarias se deberá seguir portándolo.

Zortzigarrena. Kafetegira sartzea eta hori erabiltzea

1. Mahaiak kafetegira sartzeko eta hori erabiltzeko irizpideak ezarri ahal izango ditu, Legebiltzarreko zerbitzu horren berezitasuna kontuan hartuz. Horretarako, osasun-agintariak kafetegi- eta ostalaritza-zerbitzuetarako, oro har, ezartzen dituzten arauak beteko dira.
2. Jende gehien dagoen egunetan txandak ezarri ahal izango dira bazkaltzeko ordurako.

Octavo. Acceso y uso de la cafetería

1. La Mesa podrá establecer los criterios de acceso y uso de la cafetería teniendo en cuenta la singularidad de dicho servicio en el Parlamento. Para dicha finalidad se atenderá a las normas que con carácter general se establezcan por las autoridades sanitarias para los servicios de cafetería y restauración.
2. En los días de mayor afluencia se podrán establecer turnos para el horario de comida.

Bederatzigarrena. Erretzeko debekua

Debekatuta dago Legebiltzarraren perimetroan erretzea, bereziki horretarako prestatutako aldeetan izan ezik. Gune horietan, horretarako jarrita dauden hautsontziak erabiliko dira.

Noveno. Prohibición de fumar

Queda prohibido fumar en el espacio perimetral del Parlamento, salvo en las zonas especialmente habilitadas para dicha finalidad. En estos espacios se utilizarán los ceniceros instalados a tal fin.

Xedapen gehigarria

Instrukzio hau eta bere eranskinak eguneratu egingo dira egoera soziosanitarioak horretarako bide ematen duen heinean eta osasun-agintariak COVID-19aren aurkako prebentziorako ezartzen dituzten arau eta irizpideen arabera.

Disposición adicional

Esta instrucción y sus anexos serán actualizados a medida que la situación sociosanitaria lo permita, y en función de las normas y criterios que las autoridades sanitarias establezcan para la prevención frente a la COVID-19.

Xedapen indargabetzailea

Instrukzio honek indargabetu egiten du 2021eko urriaren 26ko Instrukzioa, Eusko Legebiltzarreko aretoetako sarrera, presentzia, erabilera eta funtzionamendua arautzen dituen, eta ordezkatu egiten ditu instrukzioan arautzen diren gaiak erregulatu dituzten Mahaiaren erabaki guztiak, betiere COVID-19aren aurkako prebentziorako kontingentzia-planarekin zerikusia badute.

Disposición derogatoria

Esta instrucción deroga la Instrucción de 26 de octubre de 2021 por la que se regula el acceso, la presencia, uso y funcionamiento de las distintas salas del Parlamento Vasco, y sustituye todos los acuerdos de Mesa que hayan regulado las materias objeto de la misma, siempre y cuando estén relacionados con el Plan de Contingencia del Parlamento Vasco de Prevención frente a la COVID-19.

Azken xedapena

Instrukzio hau Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Disposición final

La presente instrucción entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.



I. ERANSKINA**Eusko Legebiltzarrera datozen taldeen bisitak kudeatzea**

Eusko Legebiltzarreko bisita gidatuen zerbitzuaren ordutegia bi txandatan finkatuta geratuko da.

Astelehenetan eta astearteetan:

Lehenengo txanda: 10:00etan.
Bigarren txanda: 12:00etan.

Asteazkenetan:

Lehenengo txanda: 10:00etan.
Bigarren txanda: 11:30ean.

II. ERANSKINA**Prensa akreditatuari esleitutako espazioak egokitzea**

Prentsaurrekoen aretoa

Hiru gune ditu: adierazpenak egiteko gunea, prentsaurrekoak eta telebista-seta.

Prentsaurrekoen eremua (mahaian eserita) legebiltzarkideek soilik erabil dezakete (kanpoko pertsonak lagunduta), baita Arartekoak ere.

Atril bidezko adierazpenak lehenetsiko dira legebiltzarkideentzat, baina informazio-bilerak ere egin ahal izango dituzte komunikabideekin erakundeetako ordezkariak (Eusko Jaurlaritzako sailburuek, adibidez) ponentzian agerraldi-egileek edo bisita instituzionaletan etortzen direnek, betiere Legebiltzarraren jarduerarekin lotuta badaude. Beste gai batzuen kasuan, agerraldi-egileek beti izango dute legebiltzarkide baten laguntza.

Telebista-setean legebiltzarkideek elkarrizketak egingo dituzte, bai telebistetan zuzenean sartzeko bai sare sozialetara igotzeko bideak egiteko.

Gune horiek guztiak Prensa eta Komunikazio Atalari eskatuko zaizkio erreserbatzeko eta beharrak kudeatzeko aldez aurretik (gutxienez, informazio-ekitaldia baino ordu erdi lehenago).

Prensa akreditatuaren lan-gela

Gune hau, batez ere, Legebiltzarreko jardueraren jarraipena egiten duten idatzizko komunikabideetako erredaktoreentzat dago prestatuta.

Prensa idatzirako leku gehiago behar izanez gero, Tomas Moro aretoan egokituko da.

ANEXO I**Gestión de las visitas de grupos al Parlamento Vasco**

El horario del servicio de visitas guiadas al Parlamento Vasco queda fijado en dos turnos.

Lunes y martes:

Primer turno: 10:00 horas.
Segundo turno: 12:00 horas.

Miércoles:

Primer turno: 10:00 horas.
Segundo turno: 11:30 horas.

ANEXO II**Adecuación de los espacios adjudicados a la prensa acreditada**

Sala de ruedas de prensa

Consta de tres espacios: zona de declaraciones, de ruedas de prensa y de set de televisión.

La zona de ruedas de prensa (en mesa) está restringida al uso de las parlamentarias y los parlamentarios (pudiendo acompañar personas externas), así como del Ararteko.

Las declaraciones en atril se priorizarán para las y los parlamentarios, aunque también podrán tener encuentros informativos con los medios de comunicación representantes institucionales (consejeras y consejeros del Gobierno Vasco, por ejemplo), comparecientes en ponencia o visitas institucionales, siempre y cuando estén vinculadas con la actividad parlamentaria. En caso de otras temáticas, siempre estarán acompañadas las personas que comparecen por un parlamentario o una parlamentaria.

El set de televisión estará dedicado a entrevistas de los parlamentarios y las parlamentarias, tanto para directos en televisiones como para redes sociales.

Todos estos espacios serán solicitados a la Sección de Prensa y Comunicación para su reserva y gestión de necesidades previamente (como mínimo, media hora antes del acto informativo).

Sala de trabajo de la prensa acreditada

Este espacio está dedicado prioritariamente a redactores y redactoras de medios escritos que realicen el seguimiento de la actividad parlamentaria.

En caso de necesitarse más espacio para prensa escrita, se habilitará en la sala Tomás Moro.

Telebista-aretoa

Telebisten jarraipena egiteko baliabide materialez hornitutako espazioa da. ETBk eta TVEk ohiko jarraipena egiten dutenez, komunikabide horiei emango zaie lehentasuna areto horretan kokatzeko. Izan ere, bi komunikabide horiek instalazio bereziak dituzte (puntutik punturako konexioekin) Eusko Legebiltzarrak sortutako seinalea zuzenean beren egoitzetara bidaltzeko edo zuzeneko konexioak egiteko. Azpiegitura teknologiko horiek mantentzea telebisten mende dago.

Telebistetarako leku gehiago behar izanez gero, prentsako lan-gela erabiliko da, edo, kasu berezietan, Tomas Moro aretoa.

Irrati-kabinak

Irratiko kabinak entzunaldiaren arabera daude esleitura, eta hedabide bakoitzak medio tekniko propioak jarri ditu Eusko Legebiltzarretik zuzeneko konexioak egiteko. Azpiegitura horien mantenimendua eta kostua medioaren kontura dira.

Programazio berezirako leku gehiago behar izanez gero, lehenengo solairuko halla erabiliko da eta, kasu zehatzetan, Tomas Moro aretoa.

Osoko bilkuren aretoko prentsa-palkoa

Normalean prentsa esertzen den palkoa egokitua dago audio-irteerekin eta eserlekuan bertan dauden mahai tolesgarriekin, erredaktoreek beren lana osoko bilkuren aretoko espazio horretatik egin ahal dezaten.

Hedabide grafikoentzako lan-eremua

Tomas Moro aretoak espazio bat izango du, batez ere, argazkilari akreditatuek beren lana areto horretatik egin ahal izateko.

Hedabide grafikoen gunea osoko bilkuren aretora sartzeko eremuan

Osoko bilkuretan, hedabide grafikoetarako mugatutako gunetan argazkilariak eta telebista-kamerek baliabide grafiko gisa erabiltzen dituzten irudiak har daitezke.

Osoko bilkura hasi baino lehen eta osoko bilkura amaitzean, legebiltzarkideen espazioa inbaditzea baimenduko da.

Batzorde-aretoetako prentsa-gunea

Komunikabideei irekitako bileren berri emateko, hiru batzorde-aretoek espazio bat dute aretoaren atzealdean, hizlarien audioa grabatzeko behar diren baliabide teknikoak dituen. Gune hau erredaktoreentzat gordeko da.

Sala de televisiones

Espacio dotado con medios materiales para el seguimiento de televisiones. Como el seguimiento ordinario lo realizan ETB y TVE, se dará prioridad a estos medios para su ubicación en esta sala. De hecho, estos dos medios tienen instalaciones especiales (con conexiones punto-punto) para enviar directamente la señal producida por el Parlamento Vasco a sus sedes o realizar conexiones en directo. El mantenimiento de estas infraestructuras tecnológicas depende de los medios.

En caso de necesitarse más espacio para las televisiones, se utilizará la sala de trabajo de la prensa o, en ocasiones especiales, la sala Tomás Moro.

Cabinas de radio

Las cabinas de radio están adjudicadas por audiencia, y cada radio ha colocado medios técnicos propios para conexiones en directo desde el Parlamento Vasco. El mantenimiento y coste de estas infraestructuras son a cargo del medio.

En caso de necesitarse más espacio para programación especial, se utilizará el hall de la primera planta y, en ocasiones concretas, la sala Tomás Moro.

Palco de prensa del salón de plenos

El palco que habitualmente ocupa la prensa está adecuado con salidas de audio y con mesas plegables en el asiento para que las redactoras y los redactores puedan realizar su trabajo desde este espacio del salón de plenos.

Zona de trabajo para medios gráficos

La sala Tomás Moro contará con espacio para que, sobre todo, las fotografías y los fotógrafos que tengan acreditación puedan realizar su trabajo desde esta sala.

Zona de medios gráficos en la zona de acceso al salón de plenos

Durante las sesiones plenarias, en las zonas acotadas para medios gráficos se pueden tomar imágenes que tanto fotografías y fotógrafos como cámaras de televisión utilizan como recursos gráficos.

Se permitirá invadir el espacio de las parlamentarias y los parlamentarios antes de dar comienzo el pleno y al finalizar el mismo.

Zona de prensa de las salas de comisiones

Para realizar la cobertura informativa de las reuniones abiertas a los medios de comunicación, las tres salas de comisiones cuentan con un espacio en la parte trasera de la sala, con los medios técnicos necesarios para grabar el audio. Este espacio se reservará para las redactoras y los redactores.



Hedabide grafikoak (kamerak eta argazkilariak) sartu ahal izango dira saioaren hasieran edo gainerenda aldatuta batzordearen edo ponentziaren hasiera hartzeko. Jarraipen informatiboa aretotik, barnetik, egin nahi izanez gero, kamerak atzealdean kokatuko dira, informazio-lan horretarako egokitutako gunean.

"Kanutazoak"

"Kanutazoak", aurreikusi gabeko informazio-uneak, ez dira gomendatuko Prentsa eta Komunikazio Ataletik. Informazio-topaketa informal horiek egin ahal izateko, mikrofona kanpoan mantenduko da.

Gainerako informazio-harremanak prentsa-aretoan, atrilean, egingo dira.

Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren instrukzioa, Eusko Legebiltzarrean maskarak erabiltzea arautzen duena

Mahaiak, 2022ko apirilaren 26ko bileran, onetsi du Eusko Legebiltzarrean maskarak erabiltzea arautzen duen instrukzioa, eta erabaki du Eusko Legebiltzarrean Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin**

2022KO APIRILAREN 26KO INSTRUKZIOA, LANTOKIETAN MASKARAK ERABILTZEARI BURUZKOA. COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIALDIK IRAUN BITARTEAN MASKARAK ERABILTZEKO DERRIGORTASUNA ALDATZEN DUEN APIRILAREN 19KO 286/2022 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA EGUNERATUTAKO NEURRIAK

COVID-19aren aurkako zaintza eta kontrol estrategiak pandemiaren fase akutuen ondoren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2022ko apirilaren 1eko zaintza epidemiologikoko protokoloan jasotakoak, ezartzen du ezinezkoa dela gure lurraldean birusa ezabatzea eta, beraz, ahaleginak egin behar direla infekzioen larritasunari dagokionez inpaktua murrizteko, asistentziako osasun-sisteman gehiegizko gainkarga sortzen ez duen transmisio maila kontrolagarri bati eusten saiatuz.

Protokoloak azpimarratzen duenez, ahaleginak bideratu behar dira pertsona kalteberak babestera, hala nola azpiko gaixotasun larriak dituzten pertsonak eta immunodeprimitutako pertsonak edo SARS-CoV-2aren aurkako immunitate nahikoa garatu ez dutenak.

Se permitirá el acceso de medios gráficos (cámaras y fotografías y fotógrafos) al inicio de la sesión o con el cambio de orden del día de la sesión para realizar tomas del comienzo de la comisión o ponencia. En caso de querer realizar el seguimiento informativo desde la sala, las cámaras se ubicarán en la zona trasera, en la zona adecuada para dicho trabajo informativo.

"Canutazos"

Los denominados "canutazos", los momentos informativos no previstos, se seguirán sin recomendar desde la Sección de Prensa y Comunicación. Para poder realizar estos encuentros informativos informales, se mantendrá el micrófono en el exterior.

El resto de contactos informativos se realizarán en el atril de la sala de prensa.

Instrucción de la Mesa del Parlamento Vasco por la que se regula el uso de las mascarillas en el Parlamento Vasco

La Mesa, en su reunión del día 26 de abril de 2022, aprueba la instrucción por la que se regula el uso de las mascarillas en el Parlamento Vasco, y acuerda su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin**

INSTRUCCIÓN DE 26 DE ABRIL DE 2022 SOBRE EL USO DE LAS MASCARILLAS EN LOS CENTROS DE TRABAJO. MEDIDAS ACTUALIZADAS CONFORME AL REAL DECRETO 286/2022, DE 19 DE ABRIL, POR EL QUE SE MODIFICA LA OBLIGATORIEDAD DEL USO DE MASCARILLAS DURANTE LA SITUACIÓN DE CRISIS SANITARIA OCASIONADA POR LA COVID-19

La estrategia de vigilancia y control frente a la COVID-19 tras la fase aguda de la pandemia, recogida en el protocolo de vigilancia epidemiológica del Departamento de Salud del Gobierno Vasco de 1 de abril de 2022, establece que no es posible eliminar el virus de nuestro territorio y que, por tanto, se deben dirigir los esfuerzos a reducir el impacto en cuanto a gravedad de las infecciones, tratando de mantener un nivel de transmisión controlable que no genere una sobrecarga excesiva en el sistema sanitario de salud.

El protocolo subraya la necesidad de que los esfuerzos se centren en la protección de las personas vulnerables, como pueden ser las personas con enfermedades subyacentes graves y las personas inmunodeprimidas o que no hayan desarrollado una inmunidad suficiente contra el SARS-CoV-2.

